

## 'Harrotu eta erein!'

Lasarte-Oriako neska\* gazteak talde feministak topaketak egin ditu herrian, indarrak batu eta saretzeko asmoz / 8-9

TXINTXARRI

## Itxaropenari kanta bat

'Merci maman' liburua atondu du Asun Moreno herritarrak, Andrea Van Eyck alabarekin batera / 6-7

Lasarte-Oriako  
Udalak kontsumo  
bonuen kanpaina  
abiatuko du  
urriaren 1ean / 2

Aitor Mansok  
kartinga alde batera  
utzi eta auto  
igoerekin aritzeko  
pausua eman du / 12

GURE IZAERA  
KULTURA  
HIZKUNTZA LEHENA.

## GEUREA LEHENA.





Astearte eguerdian aurkeztu dute Agustin Valdivia eta Nuria Fernandezek kontsumo bonuen kanpaina. TXINTXARRI

## Herriko ekonomia suspertzeko bonuak

Lasarte-Oriako merkataritza, zerbitzuak eta ostalaritza laguntzeko kontsumo bonuen kanpaina abiatuko du udalak urriaren 1ean, ostegunetik. Guztira 125 establezimendu batu dira kanpainara, eta datozen egunetan banatuko dute etxez etxe eskuorria

### Txintxarri

Pandemiak eragindako egoeratik kaltetuak irten dira herriko merkataria, zerbitzu eta ostalariak. Kalte hori arindu eta laguntzeko asmoz, berriz, hainbat neurri hartu ditu udalak azken hilabeteotan, eta orain, urriaren kontsumo bonuen kanpaina abiatuko duela iragarri du. Astearte eguerdian egin dute egitasmoaren aurkezpena Agustin Valdivia alkateak eta Nuria Fernandez Sozietate ekonomia batzordeburuak.

Bi bonu ezberdin erosteko aukera izango dute bezeroek, baina inoiz ez, hiru bonu baino gehiago establezimendu bakoitzeko. Lehenik, merkataria eta zerbitzuetako establezimenduetan salduko direnak. 20 euroko balioa izango dute, baina 10 euroren truke erosi ahalko dituzte herritarrek. Ostalaritzako establezimenduek, berriz, 10 euroko balioa duten bonuak salduko dituzte, baina 5 euro ordaindu beharko dira

horiek eskuratzeko. Alde hori kanpainaren kostuaren erdia, udalak hartuko du bere gain. Horretarako 125.000 euro bideratuko dituzte kanpainara eta beste erdia, herritarrek erositako bonuen diruarekin osatuko da. Hortaz, guztira, 250.000 euroko "diru-mugimendua" sortu nahi dute herriko merkataritza, zerbitzu eta ostalaritzan.

Merkatariek eta zerbitzu pertsonaletako establezimenduek 20 euroko 100 bonu izango dituzte, eta ostalaritzakoek, aldiz, 10 euroko 200. Guztira, 15.500 dira banatuko diren bonuak: 5.400 merkataritzarako, 6.000 ostalaritzarako eta 4.100 zerbitzu pertsonaletarako.

### Hilabeteko epea

Urriaren lehen jarriko da martxan egitasmoa eta 31n amaituko da, eta, guztira, 125 establezimendu 54 merkataria, 30 ostalari eta 41 zerbitzu batu dira kanpainara. Zenbait betebeharrak ere izango dituzte kanpainan parte hartuko

duen establezimenduek; kanpaina hastera, establezimendu horietan parte-hartzaileetan kontsumo bonuak erosi daitezkeela iragartzen duten kartelak jarri beharko dituzte, eta, bonuak amaitzean, berriz, udalari jakinarazteaz gain, agortu zaizkiela azaltzen duen kartela jarri beharko dute.

Azken kanpaina horren bidez, herriko ekonomia suspertzeaz gain, herritarrek Lasarte-Oriako erostera bultzatu nahi ditu udalak.

Kanpainaren eskuorriak etxez etxe banatuko dituztela jakinarazi dute udal ordezkariak eta bertan agertuko dira kanpainari atxikitako Lasarte-Oriako establezimendu guztiak.

**KONTSUMO BONUEN KANPAINA ERDIA UDALAK FINANTZATUKO DU 125.000 EUROREKIN**



TXINTXARRI

## Pentsionisten aldarririk ez

Lasarte-Oriako Pentsionisten Koordinakundeak jakinarazi du ikasturte hasiera honetan, momentuz behintzat, ez duela elkarretaratzerik egingo Okendo plazan astelehen goizetan, "COVID-19ak eragindako egoerak hobera egiten duen arte". Koordinakundearen sare sozialen bidez jasoko dute herritarrek elkartearren jardunaren berri.

## Sasoeta Sasoianek auzoko festak ez antolatzea erabaki du

Elkarteak ohar bidez jakinarazi du erabaki duela auzoko festak bertan behera uztea aurten. Urriaren 2, 3 eta 4ean egitea aurreikusten zuten. "COVID-19a dela eta, ezin ditugu jaiak guk nahi bezala ospatu", adierazi dute. Azaldu dute "bateraezina" dela egitarauko ekintzak beti bezala ospatu eta aldi berean beharrezkoak diren segurtasun-eta osasun-neurriak mantentzea.



Iazko Sasoetako festak. TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Udal euskaltegian martxan dira

Ostegunetik ekin diote Udal Euskaltegiko ikasleek ikasturte berriari. COVID-19ak eragindako egoera dela eta, segurtasun- eta babes-neurri guztiak hartuta hasi dira eskolekin, eta ikasturte berezia izango dela aurreikusten badute ere, egoera berrira egokitzeko prest agertu dira ikasle eta euskaltegiko arduradunak. Iazko matrikulazio kopuruak mantendu dituzte.

# Enpresa berrientzako laguntzak martxan

Lasarte-Oriako Udalak 35.000 euro banatuko ditu merkataritzaren, ostalaritzaren edo zerbitzu pertsonalen arloan lehen pausoak ematen dituzten enpresei. Laguntzen eskaera epea ireki da eta urriaren 31ra arte jasoko dira enpresen eskariak

## Txintxarri

Agustin Valdivia Lasarte-Oriako alkateak eta Nuria Fernandez Sozioekonomia arloko zinegotziak enpresa berriak sortzeko laguntzen deialdia aurkeztu dute. Lasarte-Oriako hirugarren sektorea indartu nahi dute deialdi honi esker eta aurtengo deialdia bereziki garrantzitsua dela ere azpimarratu du alkateak. "COVID-19ak eragindako egoerarengatik laguntza horiek oso baliagarriak izango dira. Horregatik, iazko kopurua mantendu nahi izan dugu, 35.000 euro".

Deialdiaren nondik norakoak Nuria Fernandez sozioekonomiako zinegotziak azaldu ditu.

Laguntza horiek hiru lerro ezberdin izango dituzte:

1. Izaera orokorra: diruz laguntzeko diren gastuen %40a lagunduko da, 1.500 euro gehienez.
2. Izaera partikularra, Eragin Komertzial Maximoko Eremutik kanpo kokaturiko establezimenduak, erretiroagatik eskualdatuak badira edo eskatzaileak gutxienez %33ko desgaitasuna badu: %60ko laguntza gehienez, 1.800 eurora arte.
3. %33a baino gehiagoko desgaitasuna edo 55 urtetik gorako eskatzaileak: %60ko laguntza, gehienez 2.500 euro.

Udalak finantzatu ahal dituen gastuak ere zehaztu ditu: enpresa eratzeko gastuak, errentamendu gastuak, Gizarte Segurantzako langile autonomoen erregimen berezian kotizatzeari dagozkion kuota, lokala egokitzeko gastuak, pertsona enplegatuak kontratatzearen gastuak eta jarduera abian jartzeko eta haren kudeaketa administratiborako aholkularitza eta gestiorako gastuak.

Lokala egokitzeko gastuen barruan ez dira kontuan hartuko altzarien, makinarien edo ekipu tekniko nahiz informatikoetan egindako inbertsioa.

## Baldintzak

Merkataritza jarduerako enpresak eskatu ahalko dituzte laguntzak, beti ere, deialdiko baldintzak betetzen badituzte.

Horien arabera, 2019ko azaroaren 1etik 2020ko urriaren 31ra arte Lasarte-Oriako sortu diren enpresek bakarrik eskatu ahalko dituzte laguntzak.

Beraz, enpresaren egoitza sozialak eta fiskalak Lasarte-Oriako egon behar dute. Eremu baimenduan sarbidea duen establezimendua ere izan behar du herrian.

Gainera, mikroenpresa izan behar da, hau da, 10 langile baino gutxiago izan behar ditu; enpresak ezin du aurretik Jarduera Ekonomikoen Gaietako Zergan jarduera berean edo antzekoan matrikulatua egon eta eskualdatzea bada, ez da enpresa berritaz joko enpresaren titular berria eta eskualdatzen duen pertsona ahaideak badira.

Horrez gain, negozioek bideragarritasun programa bat aurkeztu beharko dute. Epea urriaren 31n amaituko da.

Deialdi horretan eskaintako laguntza ezingo da gastu berarengatik jasotako beste edozein laguntzari metatu Fernandezek adierazi duenez.

Lasarte-Oriako Udalak laguntza horiek eskaintzen dituen bosgarren urtea da eta beti harrera ona izan dutela azpimarratu du Sozioekonomia zinegotziak. "Lehen guztiz amaitzen ziren. Iaz ez ginen guztia banatzera iritsi; 30.000 bat euro eman genituen laguntzetan".

Informazioa udaleko webgunean, 943 376 179 telefonoan edo [d.avila@lasarte-oria.eus](mailto:d.avila@lasarte-oria.eus) helbide elektronikoa eskuratu daiteke.



Alkatea eta Sozioekonomia zinegotziak deialdiaren aurkezpenean. TXINTXARRI

# Udazkeneko Festa

Lasarte-Oria 2020

## Marrazki erakusketa

### Irailaren 28tik Urriaren 2ra

Bisita itzazu marrazki erakusketan parte hartzen duten establezimenduak, aurkitu zurea eta lortu opari bat!

ACADEMIA DE INGLÉS STRATFORD	Caddie plaza, 9 - 1º B	KAIZEN MUEBLE Y DECORACIÓN	Geltoki kalea, 23
VENTANAS ALCAR	Oriamendi plaza, 2	COCINAS, BAÑOS Y REFORMAS CLOVER	Geltoki kalea, 23
ADMÓN. DE FINCAS MILLA	Oriamendi plaza, 2	PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA	Kale nagusia, 2
HAUNE INTERIORISMO	Oriamendi plaza, 2	FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA	Kale nagusia, 5
LOGOPEDIA HITZ- KIRIBIL	Antxota kalea, 5 bajo F	OIHANA ESTETIKA	Kale nagusia, 12
PELUQUERÍA MANI'S	Urko plaza, 1 bajo 3	VITERI MÓVILES	Kale nagusia, 13
PELUQUERÍA MARBELL	Jaizkibel plaza, 2	NATURHOUSE	Kale nagusia, 19
DULCE TENTACIÓN	Jaizkibel plaza, 4	NOGUES MODA	Kale nagusia, 21
PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA	Adarra kalea, 6	ORMAZABAL LORADENDA	Kale nagusia, 33
BIDEO LAGUNAK	Donostia etorbidea, 2	ZAPATERÍA ITURBE	Kale nagusia, 34
CAFÉ-BAR BUENETXEA	Pablo Mutiozabal kalea, 2	FERRETERÍA SUKOA	Kale nagusia, 35
BERASATEGI KAFEAK	Hipodromo etorbidea, 1	ELECTRICIDAD ARREGUI	Kale nagusia, 39
MABEL MODA	Hipodromo etorbidea, 1	CALZADOS LEDER	Kale nagusia, 42
ÓPTICA LIZARRI	Hipodromo etorbidea, 8	URRUZOLA MERTZERIA	Kale nagusia, 42
MAYA LENTZERIA	Hipodromo etorbidea, 8	PELUQUERÍA BEA	Kale nagusia, 44 trasera
PODOLOGÍA AMAIA OLONDRIS	Hipodromo etorbidea, 12	MERCERÍA OLMÍ	Kale nagusia, 46
MERCERÍA ARITZA	Juan XXIII plaza, s/n	VENTANAS ISU LEHIOAK	Kale nagusia, 46
PERFUMERÍA MAIANE	Uistin kalea, 4	ALBA MODA	Kale nagusia, 65
BAZAR ABREU	Geltoki kalea, 2	PELUQUERÍA MAY	Goikale, 2
HALCÓN VIAJES	Geltoki kalea, 2	SANTANA INFORMÁTICA	Goikale, 2
SILVIA LUIS ARBIZU ADMON. DE FINCAS	Geltoki kalea, 17	ARKUPE TABERNA	Largonea kalea, 1
IMAGINE JANTZI DENDA	Geltoki kalea, 19	SORAYA GALLEGU MICROPIGMENTACIÓN	Ola kalea, 14
MERCERÍA MAUXA	Geltoki kalea, 21		






# Mendi-tontorretatik, euskal presoen alde

Lasarte-oriatar talde batek bat egin du Sareren 'Izan Bidea' egitasmoarekin: Santa Barbara eta Buruntzara igotzeko deia egin dute urriaren 3an, larunbatez. Euskal Herrian 650 tontor igoko dira euskal presoak etxeratu eta elkarbizitarako bidean urratsak egiteko

## Txintxarri

*Ikusi mendizaleak* abestia kantatuz bukatu da prentsaurrekoa. Entsegu bat egin dute bertaratu dutenek urriaren 3rako, larunbata, orduan ere abestuko baitute kanta hori, baina ez Tximistarreta parkean, atzean txiki-txiki ikusten zen Buruntzara baizik, edo Santa Barbaran. Sarek *Izan Bidea* egitasmoa martxan jarri zuen duela zenbait hilabete, euskal presoek etxeratzearen eta gizartearen elkarbizitzaren alde urratsak egiteko. Astebete barru beste ekintza simboliko bat egingo dute, Euskal Herri osoko 650 mendi-tontor igoz.

Lasarte-oriatarrek ere parte hartuko dute ekimenean, eta bi tontor igoko aldarri horiek lau haizetara zabaltzeko: Buruntzara eta Santa Barbara. Bi zutabeak Okendo plazatik aterako dira urriaren 3an, 09:00etan. Beterri-Buruntzara eskualdean bederatzi gailur igoko dituzte.

11:00ak eta 11:30ak bitartean Santa Barbara eta Buruntzako tontorretara igotzen direnak aldi berean hor egotea da antolatzaileen helburua. Irrintzi ozen bana botako dute, eta argazkiak atera ere bai; gero, Euskal Herri osoko 650 gailur horietako irudiak batu eta mosaiko erraldoi bat osatuko



Hainbat herritarrek bat egin dute 'Izan Bidea' egitasmoarekin. TXINTXARRI

du Sarek. Egitasmoari buruzko informazio gehiago eskura daiteke <http://sare.eus/es/izan-bidea/> web orrialdean.

## Mendia eta askatasuna, "sinonimoak"

Lasarte-Oriako Sareko kideez gain, mendian ibiltzea gustuko duten zenbait herritar ere joan dira prentsaurrekora. Alex Tetuanek, esate baterako, makina bat tontor igo ditu bere bizitzan zehar. Aipatu du bere ustez "sinonimoak" direla mendia eta askatasuna, eta eraman behar

den tresna garrantzitsuena elkartasuna dela: "Denok elkartuta, ekimenaren helburuak bete soilik ez, bikoiztu egingo ditugu".

Aner Lozano ere mendizalea da, Tetuan bezain beterranoa ez den arren. Gazteen izenean hitz egin du, nabarmenduz kolektibo horrek ere "konprometitu" egin behar duela Izan Bidea egitasmoarekin. "Kartzelak hustu" egin behar direla adierazi du, eta prozesu horretan urriaren 3an igotzen den mendi-tontor bakoitza "bihotz taupada bat" izango dela.



TXINTXARRI

## Janari bilketa solidarioa

Lasarte-Oriako zenbait ostalarik bat egin dute Zaporeak elkarteak abiatutako janari bilketa solidarioarekin: Avenida Taberna, Furia Beltza, Jalgi Kafe Antzokia, Oreaka Taberna eta Tiburtzio Artizarrek, hain justu. Elikagaiak jasotzen ari dira irailaren 23tik 27ra, Morian bizi diren errefuxiatuei bidaltzeko gero. Arroza, pasta, atuna, esne hautsa, lekaleak... eta antzekoak behar dituzte.



ELA ORIA GOIERRI

## Osasun langileen protesta

Lasarte-Oriako osasun etxeko langileek bat egin zuten irailaren 18an osasungintzako sindikatuek deitutako protestarekin. Hala, osasun etxeko atarira irten ziren arratsaldean kalitatezko arreta eta osasun zerbitzu publiko baten alde. Gaur, irailak 25, elkarretaratze berri bat deitu dute sindikatuek ospitaleen atarian.

## "Birziklatzen dutenek ez dute hobaririk jaso aurten ere"

Eguzki Erakunde Ekologistak salatu du KPIaren ginetik "oso modu nabarmenean" igo dela zaborraren udal tasa

### Txintxarri

Eguzki Erakunde Ekologistak ohar bidez salatu du zaborren tasa KPIaren ginetik "oso modu nabarmenean" igo dela azken urteetan. "Bost aldiz handiagoa izatera iritsi da". Eguzkiren

iritziz, "are okerragoa" da birziklatzen duten lasarte-oriatarrentzako hobari edo deskonturik ez egotea. "Arduraz jokatzeko duten herritarrek zigortzen ditu, eta axolagabeak, berriz, saritu. Datorren urteko

tasak laster erabaki behar ditu udalak, okerrak zuzentzeko aukera berri bat izan daiteke".

"Birziklatzen dutenek hobaririk jaso ez badute ere, udalak esaten jarraitzen du birziklatzearen alde dagoela, baina itxurak egiteko, zerbait egingo balu bezala baina ezer egin gabe", salatu du Eguzkik. Lurpeko edukiontzien inguruko erreferenduma "absurdoa" dela uste du, ez dituelako konpontzen "Lasarte-Oriak hondakinen alorrean planteatuta dituen arazoak".



**NOAOA**  
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

**943 37 36 13**

Orduategia: **09:30-13:30**

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

**info@noaa.eus**

Izena eman Lasarte-Orian!

# 2020-2021 ikasturtea

Herriko Gida Komertziala sarean ikus dezakezu  
[www.txintxarri.eus/gida](http://www.txintxarri.eus/gida)



**Haurren garapena**



**Euskaltegia**

## Zure seme-alaben garapenerako laguntza integrala

Logopedia, osteopatia eta psikomotrizitatea



**Noelia Calero**  
OSTEOPATIA • FISIOTERAPIA

Osteopatia:  
688 815 089



Psikomotrizitatea:  
617 294 582



Logopedia:  
639 925 551

eman izena!

**aek**  
euskara praktikoa

Muntteri AEK euskaltegia  
Geltoki kalea 17, behe, 20160 Lasarte-Oria  
• 607 62 52 33 • [lasarte@aek.eus](mailto:lasarte@aek.eus)  
[www.muntteri.blogspot.com](http://www.muntteri.blogspot.com)

## Muntteri AEK euskaltegia

EUSKARA-IKASTAROAK  
MATRIKULAZIOA ZABALIK

- Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
- Aurrez aurreko eskolak.
- Autoikaskuntza.
- "On-line" aukera.



**Akademiak**



**Diafreoa**

**zitek** zientzi eskola

- ZIENTZIAK • HIZKUNTZAK
- BANAKAKO ZEIN TALDEKO KLASEAK
- AURREZ AURREKO SAIOAK EDO ONLINE

ZUK AUKERATU!!

Tel: 943 36 31 06

Goikale 12, behe LASARTE-ORIA

[www.zitek-akademia.com](http://www.zitek-akademia.com) • [info@zitek-akademia.com](mailto:info@zitek-akademia.com)

**GURUTZE**  
Diafreo gunea

Zoru pelbikoa  
ezagutza eta lanketa

urriak 10  
ostirala  
10:00-13:30

40 €  
AFORO  
MUGATUA!!

IZENA EMATEKO: 617 584 095  
GURUTZE Diafreo gunea • Geltoki 25 atzea

Datorren  
asteke gidan  
zure eskola  
hemen azaltzea  
nahi baduzu  
orain duzu  
aukera!

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:

943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

Hurrengo IKASTURTE GIDA urriaren 2an kaleratuko dugu

# Aldatu, sendatu eta eskertzeko hitzak

Idaztea amets zuenik ere ez zekien Asun Morenok (Lasarte-Oria, 1968) duela zazpi bat urte orriak betetzen hasi zenean. Hasieran asmo zehatzik gabe jositako lerro artetik 'Merci Maman' liburua atondu du. Bizipenetan murgilduta egin duen prozesu eraldatzailean bidaide izan du Andrea Van Eyck alaba (Lasarte-Oria, 1995)

## Maitane Aldanondo

Paquita, Asun eta Andrea. Familia bereko hiru belaunaldi *Merci Maman* (Eskerrak ama) liburuaren bueltan. Orri artean ageri dira denak modu batera edo bestera. Lehen pertsonan eta depresioak jotako amarekin izandako bizipenak baliatuta idatzi du Asun Morenok eta edukiaren lekuko nahiz prozesuaren parte den Andrea Van Eyck alabak ilustratu ditu pasarteak. Abuztutik salgai dago, baina koronabirusak galarazi egin die nahi bezala aurkeztea. Londres eta Lasarte-Oria artean TXINTXARRI-rekin izandako solasaldi birtualean obra bera eta haren inguruko bizitza hizpide izan dituzte.

Zazpi bat urteko bidaia eta aurrez pentsatu gabeko helmuga da kontakizun bilduma; bizitzako une batean gertatzen ari zitzaiena partekatze beharretik sortua. "Terapia moduan hasi nintzen idazten, barrua lasaitzeko, ez bainekien zer gertatzen zitzaidan", zehaztu du Morenok. 45 urtetatik aurrera bere bizitzan inflexio puntu bat izan zen, amaren depresioarekin bat egin zuena; eta alabak aholkatutako liburu baten jarraibideei segika, goizero hiru orrialde betetzen hasi zen, "burura boteprontoan" etorritakoarekin.

Elkarren arteko koherentziarik gabe eta haiekin zer egin ez zekiela idatzitako lerro horiek Van Eyckek irakurtzen zituen. Errutinari ekin eta hiruzpalau urtera, ordea, asmo bat topatu zieten. "Testu bat heldu zen eta bideak hori izan behar zuela ikusi nuen. Beldur gehien ematen zion horretaz idatzi behar zuen: amarekin eta bere gaitzarekin duen harremanaz", gogoratu du gazteak. Hori izan zen duela

urte erdi liburu bilakatuko zenaren lehen urratsa.

Eliza, azoka txikia, Ama Brigitarren komentua, kanpaiak... Lasarte-oriatarrei ezagun zaizkien txoko eta soinuak ageri dira ordenarik gabe irakur daitezkeen pasarte horietan. Gaitzak amarekin asko paseatzera behartu zuen Moreno eta osteratxo horiek beraien harremanaz hitz egiteko inspirazio iturri izan ditu. Horien baitan hiru gai landu ditu: Ama-alaba harremanak, osasun mentala eta nork bere burua berrasmatea.

Morenok hitzak jarri ditu eta Van Eyckek irudiak. Alabak nahi gabe topatu du bere burua proiektuan murgilduta. Editore lanaz gain, ilustrazioen ardura ere egokitu baitzaio. "Niretzat gogorrena berak guzti hori nirekin partekatzea zen. Konfiantza gune bat topatu du nigan. Ez da erraza ikusi duzun horretaz irakurtzea eta aholkatzea. Sendagarria izan da zirkulua osatzea nirea ere baden historia hori ilustratuta". Kontakizun gordina bada ere, kolore atseginak aukeratu dituzte iruditarako, urdina eta fuksia, eta marren artean hitzak ere ageri dira. "Oso naif dira. A m o n a r e n z o r a m e n a irudikatzean, horren tragikoa izan zen zerbait infantilizatze beharra nuen", aitortu du.

## Depresioaren mamua

Zumaburuko eraikin berean bizi izan dira hirurak solairu bakarreko aldearekin. Harreman oso estua izan du gazteak amonarekin, "hezur eta mami izan gara", eta depresioaren hastapena berak bizi izan zuen. "Ni jabetu nintzen eta ama konfidente izan nuen.

Bitartekaria nintzen. Asko sufritu dut testuinguru horretan, harreman hori josten eta hobetzen ahalegintzen zen bien arteko gizaki txikia bezala ikusi dut nire burua. Gatazkan lokarri. Biak asko maite nituen eta talka oso mingarria zitzaidan".

Beti gaixo gogoratzen du amona. Aurretik ere gauzak errazak ez baziren, gaitzak elkarbizitza zaildu egin zuen. Paquitaren bizitzeko gogo eza ulergaitza zitzaien ingurukoei. Etxean bake falta izugarria zen, etengabeko tentsioa, nondik joko ote zuen ez baitzekiten. Van Eyckek gogoan du "kontrola izateko nahia, bera sendatzeko gaitasuna edukitzearena. Egun batean amore eman eta gure esku ez zegoela ulertu genuen arte". Une horretatik aurrera denak hobera egin zuen.

## MORENO TERAPIA MODUAN HASI ZEN TESTUAK IDAZTEN, LIBURU BAT EGITEKO ASMORIK GABE

## AMAREKIN ETA HAREN BURUKO GAITZAREKIN DUEN HARREMANEAN OINARRITU DITU PASARTEAK

## VAN EYCK-EK MODU NAIFEAN IRUDIKATU DU ZORAMENA, "INFANTILIZATZEKO BEHARRA NUEN"

Ildo horretatik, buruko gaitzen ikustaraztea, haiei buruz hitz egitea eta estigma kentzea ezinbestekoa dela uste dute, "Esistitzen dira eta zenbat eta gehiago hitz egin horiei buruz, lagunduago sentituko gara. Aitona minbiziarekin hil zen eta amak beti dio norbaitek minbizia duenean jende guztia batu egiten dela, baina gaixotasun mental bat duenean, denek ihes egiten dutela. Bitxia da, biak baitira oso hilgarriak".

## Mugak hautsi

Paquitaren gaitzak iraganera egin eta sinesmen asko apurrarazi dizkio Morenori. Ez da erraza izan eta kontaktak bere baitara begira jartzen du zenbaitetan irakurlea. "Irakurri dutenek hasieran hunkiberatasun handia nabari dute, gure historia ezagutzen dutelako, edo hori uste zutelako, baina ez lehen pertsona kontatuta". Edonola, bere adinaren bueltan dauden askok euren burua islatuta ikusi dutela esan diote: erlijiotasun handiko hezkuntza, muinetaritutako sinesmenak, asteroko meza... Euren bizitzako parte izan dira.


Idazleari sentimenduak kokatzeko balio izan dio liburuak, ama barkatzeko eta bere buruari beti nahi izan duen emakume heldua izateko aukera emateko. Idazten amaitzean amaren jokabidea ulertu duela sentitu du Morenok eta jabetu da bien arteko harremanak noraino eman dezakeen. Horren aurrean, kexatu beharrean, duenagatik eskerrak ematen ere ikasi duela dio. Hortik, izenburua. Eskertza da, batetik, amari, "ahal zuen ondoen egin duelako"; bestetik, gaixo bada ere, oraindik bizirik



Asun Morenok bere estreinako liburuan

dagoelako. "Eskerrak ematen dizkiot gauza asko ikasteko aukera ematen didalako. Ezin dut gehiago eskatu".

Amaren irudi "erromantiko" eta "ideala" desegin eta errealtatea bere horretan onartzea ez da lan samurra izan, baina liburu "itxaropenari kanta bat" izatea nahi dute. "Istorio tristeak dira? Bai, baina gu ez gara pertsona tristeak. Umoreak salbatu gaitu. Uneak izan ditugu, baina umorez eraman dugu", ñabartu du Morenok karkara ugari izan dituen saioan. Bizitza "zoriontsuago" eta "lasaiago" bat lortu artekoa besteek bizitakoa baino gogorragoa ez dela izan



Andrea Van Eyck eta berak sortutako irudietako batzuk. TXINTXARRI.



agertzen den Ama Brigitarren komentu aurea hautatu du argazkirako. TXINTXARRI

ere nabarmendu du *Merci Maman* liburuaren idazleak.

Konplizitatea eta harrotasuna sumatzen dira beraien hitzetan. Zerbaitengatik idatzian islatutako ama-alaba harremanaz gain, bien artekoak berebiziko garrantzia izan du prozesu honetan. Amarekiko harremanak mugatu egiten zuela sentitzen bazuen Morenok; alabari esker, nolabait, amets egin eta bere zenbait nahiez konturatu da. Iritzi berekoa da Van Eyck ere. "Zubi bat izan naiz amarentzat, aukera berrietara zubia. Urratsa egitera ausartu nintzen eta bera ondoren etorri zen". Horri lotzen dizkio, esaterako, artea ogibide

izateko aukera edota herri batean jaio eta hazita sentitu dituen mugak lausotzea: "Beti hor egotera, ez irtetera, kondentatuta zauden sentipena nuen. Amets batzuk ezin direla zureak izan". Margenetatik kanpora Madrilera joan zen Arte Dramatikoa ikastera, eta egun, Londresen bizi da.

**IDAZKETARI ESKER, AMAREN IRUDI IDEALA ETA SINISMEN MUGATZAILEAK APURTU DITU**

Urruntasunak elkartu egin ditu eta liburuarekin sakondu egin dute beraien lotura; idealizatu gabe, elkar ulertzeko ahalegina eginda, baizik. "Bere burua berregin du. Amak utz diezagukeen herentzia onena gero eta ama hobetua izateko egin duen lana da, bere autokritika gaitasuna".

**EDUKIA ZENBAITETAN TRISTEA BADA ERE, "ITXAROPENARI KANTA BAT" IZATEA NAHI DUTE**

**Iritziak entzuteko gogoz**

Testu multzoari konfinamenduan eman zioten liburu itxura. Paquitak urteak egin ditu psikiatrikoan, eta hain justu, hiruak itxialdian zirela, osatu dute zikloa. Emaitza ikusi du, baita zenbait orri irakurri ere eta liburuarekiko duen jarreraren harrotasuna igartzen diote

**LIBURUA AURKEZTEKO PRESTATU DUTEN PERFORMANCEA EGUERRITAN EGITEN SAIATUKO DIRA**

senideek. "Batetik bestera darama eta edonori 'saldu' nahi dio", gogoratu du Van Eyck barre artean.

Hasieran berarentzat gordetzeko asmoa bazuen ere, pauso guztiak eman ondoren, irakurleekin partekatu eta haien iritziak entzuteko gogoz dago Moreno. Liburua aurkezteko performance bat prestatua dute, baina pandemiak emanaldiak bertan behera uztera behartu zituen. Donostiako La Farandulan abuztu amaieran egitekoak ziren zortziak, egoerak ahalbidetuz gero, Eguberritan berreskuratu nahi dituzte.

# Indarrak batu eta harremanetan sakontzeko topaketan bildu dira

Egun osoko egitaraua egin du Lasarte-Oriako neska\* gazteak talde feministak irailaren 19an: indarrak batzea eta saretzea izan dira antolatzaileen helburu nagusiak

## Maitane Aldanondo

Oriarte Institutuko jolastoki atarian hitzordua zuten topaketa feministetan parte hartzeko interesa adierazi duten neska gazteek. Koronabirusa tarteko, aurrez izena eman behar izan dute, eta hemeretzi dira hesi aurrean daudenak. Jada ohikoak diren segurtasun eta higiene neurriak mantenduz, zoruan, kartoi zati gainean edo esteran eserita biribil handi bat osatu dute gazteek Adarra plazan. Nork bere burua aurkeztu du izena eta bere ezaugarriren bat gehituta, esaterako, zaletasunen bat. Denek hitza hartu ondoren, jolas baten bidez, hiru taldetan banatu dira gogoeta egiteko. Taldearen helburuak, lan ildoak, jarduerak... Haietaz mintzatzeko zenbait galdera proposatu eta paperean erantzun dituzte, lehenik, eta kideekin partekatu, jarraian.

Iritziak, proposamenak eta ideiak biltzen joan dira, amaieran, guztien artean partekatuz. Talde bakoitzeko kide batek irakurri ditu esanguratsuenak, besteren artean, feminismoaz eta feminismo korrante ezberdinen inguruan gehiago jakiteko nahia, ahalduntze pertsonal eta kolektiboa, emakumeen arteko saretzea, gune seguru bat sortzea, neska gazteagoei transmisioa bermatzea, izaera irekia izatea, proaktiboki jokatzea, babes sare bat sortzea... Hurrengo urratsak josteko bide-orria badute.

Nahiak partekatzen ari zirela, arratsaldera arte Oriarte erabilgarri izango ez dutela jakinarazi diete –goizerako ez dute baimenik jaso–. Beraz, hurrengo jarduera, pankartak margotu eta kamisetak serigrafatzea, atari zabalean

egin dute zeruko lainoek euri mehatxua egin arren. Gero, lehortzen jarri dituzte Xirimiri elkarteko eskaileretan, norbere etxetik ekarritakoa bazkaldu eta bingoan jokatu duten bitartean.

## Bertsoak eta aldarrikapena

Indarberrituta, arratsaldean, abiapuntura bueltatu dira bertso saioa egiteko. Oriarteko jolastoki estalian aritu dira Uxue Alkorta, Oihana Arana, Haizea Arana eta Ane Peñagarikano. Hasierako agurrarekin ari zirela mutiko talde bat pasa eta iseka moduan txalo egin diete. Jarraian, "Sukaldera!" gaztelaniaz oihua entzun da. Horri heldu diote bertsolariek lehen lana egiteko.

Ordu eta erdiko saioa izan da; gaiak askotarikoak: Belaunaldi desberdinetako emakumeen azalean jarri eta nola bizi duten azaldu dute, hezkuntza grebaz aritu dira, euskalkietatik hartutako hitzen esanahia asmatu dute –edo saiatu dira, behintzat– barre malkoak ere eragin dituen "kakota", adibidez; edo mendi, kostako herri edota emakume aktore nahiz bertsolari izenekin bertsoak josi dituzte. Ondo pasa dute bertsolariek nahiz entzuleek, ingurutik interferentziak heldu arren, ozen entzun den "Arriba España" adibidez. Emakumezko eta euskaldun izatearen ajeak ote?

Azkenik, herriko erdiguneko kaleetan barrena manifestazioa egin dute. Goizean pintatutako pankarta eskuetan eta kamisetak soinean irten dira Okendotik, eta aldarri bana eskegi dute Kale Nagusian eta Oriarten. Aldarrikapen oihuak ere egin dituzte, "Sukaldera zuek joan zaitzete", esaterako. Plazara bueltan, talde argazkiarekin osatu dute egitaraua.



Lasarte-Oriako neska\* gazteak taldearen topaketa feministan parte hartu duten lasarte-oriarrak, Okendo plazan. TXINTXARRI

## "Edozein gai feminismoetik lantzea da erronka nagusia"

MAIDER GALARDI F. AGIRRE 'BERRIA FM'-KO KAZETARIA

### Maddi Zaldua

Berria FM podcast saioaren bigarren denboraldiari hasiera eman berri dio Maider Galardi F. Agirrek (Lasarte-Oria, 1995). Iazko udaberrian, BERRIA egunkariak gogoeta prozesu bat abiatu, eta eduki multimedia berriak sortzeko, kontsumitzaileei informazioa beste euskarri batzuetan helarazteko beharra ikusi zuten, eta horrekin batera, euskarazko hedabidea, hedabide feminista izateko oinarria zehaztuta,

lanketa egin eta Berria FM sortzeko lanetan hasi zen. "Udan hasi ginen podcasten ideia definitzen, udazkenean egituratu genuen dena, eta azaroan egin genuen lehenengo saioa". 0. saio bat egin zuten "etxeokentzat" eta, lehen esperientzia hori gaindituta, 1. saioa egin zuten. Hortik aurrera etorri dira gainontzeko denak.

Podcast saioekin hasi aurretik, egunkariko erredakzioan aritzen zen Galardi F. Agirre eta orduko eta oraingo lanen artean ikusten

du alderik: "Balio dit eguneroko erritmo frenetikotik ateratzeko, arnas gehiago hartzeko; ez da berdina eguneroko, egunerokoaz idazten aritzea, edota bi astean behin saioa egitea".

Erredakzioaren ildoari jarraituz, gaurkotasanari lotutako gaiak uhinaratuko ditu, hori bai, gaiak beti ikuspegi feminista batetik landuz. Edozein gai feminismoaren betaurrekoetatik begiratzea posible dela uste du herritarrak, eta hori izan da gainera, orain





Kartelak prestatu eta ekintza ezberdinak egin dituzte egun osoan zehar. TXINTXARRI



Bertso saioaz gozatzeko aukera ere izan dute, Oriarteko patio estalian. TXINTXARRI



Kamiseta txuriak serigrafiatu dituzte eurek sortutako irudi batekin. TXINTXARRI



Arratsaldean manifestazioa egin dute herriko kaleetan barrena. TXINTXARRI



NEURE KABUZ

LIERNI REKONDO

## Harrotu eta Erein

Ondo gogoratzen dut oraindik institutuko patioan genuen txokoa, hainbeste elkarrizketa txutxumutxu eta jolasen lekuko izan zena. Lur zati txiki bat besterik ez zen, futbol zelaiaren ertzean, bazterrean, ez baikenuen erdian egoteko zilegitasun nahikorik. Lekuz kanpo sentiarazten gintuzten hurbildu bakoitzean.

Larunbatean herriko Neska\* Gazteek antolatutako egun osoko egitarau feministara gerturatzeko aukera izan nuen tartetxo batez eta, lehenengoz, indartsu eta eroso zapaldu nuen jolasleku horren erdigunea. Behingoagatik emakumeak jolastokiaren zentroan, ikusgai, entzungai, espazioa okupatzen. Ikusizko metafora itzela iruditu zitzaidan, eta baita jarraian etorri zena ere.

Bertso saioa hasi eta pare bat minutura mutil gazte talde baten bozek emakume bertsolarien kantuak lausotu zituen. Futbolera jokatzeko zuten txokoa hartu izana ez zitzaien gehie gustatu antza, mikrorik gabe baina ahotsa gora, euren artean hizketan, gainera beti. Ordu erdi ez zen igaroko beste gizon baten ahotik "Arriba España" entzun genuenerako. Feministak eta gainera euskaldunak; ez zuen gehiago behar. Hori gutxi balitz ere, saioaren amaiera aldera, guapa, neska polita eta beste hainbeste "laudorio" iritsi zitzaizkigun, nerabegarotik aspaldi igaroak ziren mutilen ahotik.

Gertakariok eman didate zer pentsatua. Aztertzea da nolako deserosotasuna sortzen duen emakume talde batek espazio publikoak okupatu edo zentralitatea hartzeak; deserosotasun horrek eta ertzean egotera ohituta ez egoteak nola daramatzen gizotasunaren aldarri egitera, oilar harroen pare "ez dezazuela ahaztu gero, hori ez dela zuen lekua".


Inoiz emakumeon saretzeko, espazio publikoak hartzeko eta geure ikusgarritasuna aldarrikatzeko beharra zalantzan jarri duenak, ez du ingurura unetxo batez begiratzea besterik.

Hemen gaude, eta zuen posizio pribilegiatua mantentzeko aldarri harroek hautsak harrotzeko are motibo gehiago ematen dizkigute, hazia ereiteko Lasarte feminista bat lora dadin. Ez zaigu lanik faltako, ezta indarririk ere.

lau urte abiatu zuen kazetaritza ibilbidean bere buruari jarritako erronka nagusietako bat: "Kazetari feminista bai, baina horrek ez du esan nahi bakarrik berariaz gai feministak lantzea. Hori garrantzitsua da, noski, baina uste dut, garrantzitsua dela baita ere edozein gairi trataera hori ematea; begirada hori bermatzea da erronka nagusietako bat, ikuspegi feminista daukan kazetaritza egiten saiatzen gara".

### Lerro artean dagoenaz

Izenburu hori jarri dio hasi berri duen bigarren denboraldiko lehen saioari. UEU eta EHUren *Euskal Kultur Sorkuntza eta kritika feminista* graduondokoa oinarri hartuta, jardunaldi batzuk egin zituzten



Maider Galardi F. Agirre. M.G

Eibarren irailaren 12 eta 13an, eta bertan atera diren bi puntu nagusiren inguruan landu du saioa: literaturan, antzerkian, dantzan, etab. ezkutuan geratu diren emakume\* autoreak eta fikzioan errepresentatzen diren gorputz "hegemonikoak". Puntu horiek abiapuntu hartuta osatu du podcasta: "Lerro artean, ezkutuan geratu

diren bestelako kontakizun eta iruditeria batzuek argitara atera ditugu".

### Hamasei saiotan, 40 emakume\*

Orain arte sortu dituzten podcast guztietako protagonistak emakumeak\* izan dira: "Ez da markatua izan, baina polita izan da ikustea, emakume\* aditurik ez dagoela uste den bitartean, denboraldi oso bat emakumeekin\* bakarrik egin izana".

Entzun nahi duen orori zuzenduta dago *BERRIA FM*: "Erraza, eskuragarria da eta gaiak lantzerakoan ere trataera oso jasoa ez izaten saiatzen gara, edukiak ahalik eta entzule gehienarengana irits daitezten".

Lehen denboraldiko maiztasun bera izango du ikasturte berrian ere *Berrria FM*-k. Hamabostean

behin entzun ahal izango dira saioak, asteazkenetan. Hurrengoa hilaren 30ean izango da. Goiz-goizetik zintzilikatzen dute *BERRIA*-ko webgunean, eta 12:00etarako zabaltzen dute sare sozialetan.

Orain arteko kolaborazioekin jarraituko dutela iragarri du Galardi F. Agirrek, tartean, bi herritar izango ditu uhinetan berarekin, Ramoni eta Lohitzune -Bea Egizabal eta Intza Alkain-, eta umore kutsua jarriko diote podcastari. "Oso pozik" agertu da kazetaria bi herrikideak denboraldi berrian ere parte hartzera animatu direlako: "Umorea tresna baliagarri bezain beharrezkoa da; balio du barre egiteko, autokritika egiteko, baina baita ere begirada zorrozteko".



Buruntzazpi txirrindularitza eskolako Asier Pozo, Gipuzkoako txapelketako garaikurra eskuan eta maillota soinean. E. POZO

## Asier Pozo, erlojupeko Gipuzkoako txapeldun

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideak Gipuzkoako txapeldunaren maillota jantzi du proba gogorrean. Lehen hiru sailkatuak hiru segundoren tartean sartu dira helmugan. Haimar Etxeberria, berriz, bigarren izan da Segurako sarian

### Txintxarri

Junior mailako Gipuzkoako sailkapeneko lehen hamabost txirrindulariak batu ziren irailaren 20an, igandez, Alegian Gervais oroimenezko proban parte hartzeko. Horien artean,

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako hiru gazte: Asier Pozo, Beñat Carbayedeta eta Haimar Etxeberria. Aurrean 18 kilometrotako ibilbidea eta Gipuzkoako txapelketa jokoan. Asier Pozok eraman zuen saria.

Aizarnazabalen jokatu ohi den proba uztailan zen jokatzekoa, baina COVID-19aren garapena dela eta, bi hilabete atzeratzea erabaki zuen federazioak, baita lekuz aldatzea ere. Ondorioz, Alegian lehiatu da aurretan

Erlojuaren Aurkako Gipuzkoako Txapelketa eta ibilbide berrira moldatu behar izan ziren txirrindulariak.

Horrek ez zien lehiakide gazteei arazorik sortu eta lehia gogorra izan zen lehen postua lortzeko.

Buruntzazpi eskolako Asier Pozo, Danel Casais eta Enekoitz Azparren izan ziren azkarrenak, bataz beste 44 kilometro orduko eta estu-estu ibili ziren denbora onena egin nahian. Garaipena ordea, Pozo herritarrarentzat izan zen helmuga 24:20ean igarotzean. Casaisek bi segundu gehiago behar izan zituen eta Azparrenek, aldiz, hiru gehiago.

Laugarren postua Buruntzazpiko Beñat Carbayedak lortu zuen. Pozok baino hemeretzi segundo gehiago behar izan zituen gazteak. Haimar Etxeberria berriz, zazpigarren izan zen.

### Segurako saria

Hala ere, Etxeberriak taldekideek baino kilometro gehiago zituen hanketan, aurreko egunean Segurako sarian parte hartu eta bigarren postua eskuratu baitzuen.

Proban 81 kilometroko ibilbidea egin zuten txirrindulari gazteek eta hirugarren mailako bost mendate eta bigarren mailako bat igaro zituzten. Batez beste, 39 kilometro orduko abiadura izan zuen lasterketak. Enekoitz Azparren izan zen garaile.

Ulma taldeko Casaisek hamabost bat txirrindularik

osatutako taldetxotik ihes egin zuen, bertan zen Haimar Etxeberria eta bere atzetik Azparren joan zen. Kilometro batzuk elkarrekin egin ostean, erritmoa aldatu zuen Azparrenek. Casais atzean geratu zen eta taldetxoarekin bat egin zuen.

Azparrenek bakarrik igaro zuen helmuga eta 53 segundora iritsi zen taldea. Sprintean jokatu zen bigarren postua eta Buruntzazpi eskolako Etxeberria adi ibili zen. Taldetxoari aurre hartu eta zilarrezko postua eskuratu zuen.

### Errepideko txapelketa buruan

Lasterketak ez dira amaitu. Antzuolan eta Lazkaon izango dituzte hurrengo asteburuetan Buruntzazpiko txirrindulariek.

Gogor lehiatuko dira juniorrak lehen postuetan izan eta urriaren 11n Anoetan lehiatuko den M. Oiarzabal eta A. Urkola oroimenezko lasterketarako sailkapena lortzeko. Bertan erabakiko da aurtengo denboraldi bereziko errepideko Gipuzkoako txapelduna.

Urriaren 24an, berriz, taldeko erlojuaren aurkako Gipuzkoako Txapelketa izango da Legorretan.

## 18 KILOMETROTAKO IBILBIDEA 24.20-KO DENBORAN EGIN ZUEN ASIER POZOK GARAIPENA LORTZEKO

## Intzako seniorrek ederki hasi dute Ezker hormako txapelketa

Tartaloetxe 22-10 garaitu dute herritarrek, Michelin kirol-gunean atek itxita jokaturako norgehiagokan

### Txintxarri

Ikusleen berotasunik gabe, baina garaipenarekin hasi zuen lehiaketa bigarren senior mailako Intzako bikoteak ezker hormako txapelketa.

Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak Tartaloetxe Matxinandiarena-Ibañez izan zituzten aurrez aurre eta 22-10 gailendu ziren.

Nahiz eta emaitza ikusgarria izan, partida gogorra eta luzea, 45 minutukoa izan zela adierazi digu Intza kirol elkarteko Jose Felix Solanok.

Herriko pilotariak kontzentratuta atera ziren eta hasieratik izan ziren nagusi. Euren erritmoa ezarri eta 10-1ekoa jarri zuten markagailuan.

Partidaren bigarren zatian, Zegamako bikoteak jokoa parekatzea lortu zuen. Alferrikako lana izan zen ordea, Intzako bikoteak hasierako tartea mantentzen jakin baitzuen, garaipena eskuratu.

### Partida ederra

Intzako bikoteak partida ona egin zuen Intzako arduradunaren



Intzako senior mailako bikoteak partida gogorra jokatu zuen. T. VALLES

hitzetan. "Mikel Elolak ziur jokatu zen atzean, akatsik gabe eta egoera menpean izan zuen partida osoan", azpimarratu du Solanok.

Artetxek ere aurrean sendolan egin zuela aipatu du. "Tanto eta erremate ederrak egin zituen.

Mota guztietako tantoak egin zituen gainera, bi paretak, gantxoak, txokora, dejadak..."

### Txanponaren bi aurpegiak

Bigarren kadete mailako bikoteek zorte ezberdina izan zuten. Intza

1 bikoteak ezin izan zuen Tolosa garaitu.

Jokin Lizaso eta Haritza Diaz de Gereñuk osatutako bikoteak urduri hasi zuen partida. Lizasoren debuta zen kadete mailan eta gainera, Diaz de Gereñuren lehen partida zen atzelari lanetan.

Tolosako bikotea ederki baliatu zen urduritasunaz partidaren agintea hartu eta markagailuan tartea egiteko. Intzako bikotea lasaitu zenean, indarrak parekatu ziren. Ordurako, tolosarrek garaipena zuten eskuan, 22-9.

Intza 2 bikoteak, berriz, garaipeneko puntuak eskuratu zituen etxetik mugitu gabe. "Arerio batek min hartu zuen eta Ilunpeko kideek partida jokatu ez zela jakinarazi ziguten", jakitera eman du Intza kirol elkarteko arduradunak.

# LASARTE-ORIA

Arreta profesionalena, herrian bertan!

# GREMIOEN GIDA 2020



Herriko GIDA KOMERTZIALA sarean ikus dezakezu  
[www.txintxarri.eus/gida](http://www.txintxarri.eus/gida)



Elektrizitatea



Kristaldegi eta leihoak



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21  
600 857 586 - [www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com) (on-line denda)



- Ispiluak
- Beira apaingarriak eta alakatua
- Merkataritza instalazioak
- Dutxa itxidurak
- Kristalgintza orokorra



Uistin Kalea 11 (Zubieta Plaza) Lasarte-Oria  
Tlf.: 943 36 23 52 607234522  
[www.cristaleriadeloria.com](http://www.cristaleriadeloria.com)



- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943 37 17 33 • 610 45 93 45  
[www.cristaleriaanorgatxiki.com](http://www.cristaleriaanorgatxiki.com)



28. urteurrena

*Mota guztietako leiho, pertsiana, manpara, toldo eta dekorazioko profesionalak zure zerbitzura*

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA, ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOA

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria  
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22  
[ventanas\\_isu@hotmail.com](mailto:ventanas_isu@hotmail.com)  
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil



Barne-Diseinua



Iturgintza



Igeltseritza



SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5  
Lasarte-Oria  
Tel: 943 361 471  
[www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)



ITURGINTZA  
IGELTSEKITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria  
Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52  
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigarraga  
[info@illarreta.com](mailto:info@illarreta.com)



ERAIKUNTZA MATERIALAK

- ERAIKUNTZA MATERIALAK OROKORREAN
- ZERAMIKA
- SANITARIOAK
- KOMUNEKO KONPLEMENTUAK

[www.gamma.es](http://www.gamma.es)

BILTEGI OROKORRA ERAKUSKETA  
Oria Etorbidea, 6 Goikale, 2  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 36 64 73 Tel.: 943 36 59 47  
[aarreguis@gmail.com](mailto:aarreguis@gmail.com) Faxa: 943 36 59 47



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 059 392 - 943 566 640  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) - [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)  
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:  
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)  
Hurrengo GREMIOEN GIDA urriaren 30ean kaleratuko dugu

# Aitor Manso, kartingetik auto igoeratarara

Euskadiko Mendi Igoera Txapelketan parte hartzen ari da herritarra Formula ibilgailuan. Bi probatan aritu da, Aian eta Jaizkibelen, eta esperientzia hartzen ari da. Txapelketako azken proba urriaren 18an jokatu du: Urrakiko igoera

## Nerea Eizagirre

Aitor Manso herritarrak urteak egin ditu karting munduan. Lehiaketaz lehiaketa Euskal Herrian eta Espainiar Estatuan sariak irabazi ditu. Aurten kartinga utzi eta auto igoeretan hasteko pausoa eman du. "Kartingean maila altuenean bi urte egin nituen eta bertan ezin nuen gora egin. Pauso handia eman nahian, Formula bat erosi genuen, kart-aren antzekoa da, eta mendi igoeretan parte hartzeko pausoa eman genuen", azaldu digu gidari gazteak.

## Mendi igoerak

Euskadiko Mendi Igoera txapelketan parte hartzen ari da Lasarte-Oriako gidari gaztea. Debuta abuztuaren 22an egin zuen Andatzatik Aiara igoeran eta irailaren 20an, bigarren proban parte hartu zuen, 42. Jaizkibelgo igoeran. Ez da gaizki ibili, bere mailako seigarren eta zazpigarren postuetan amaitu



Aitor Manso Formula autoarekin ari da Euskadiko Mendi igoeretan lehian. T. VALLES

ditu Mansok probak, hurrenez hurren.

Esperientzia ona izaten ari dela azpimarratu du eta lehen urtea izanik asko ikasten ari da. Lasterketa modura moldatu behar izan da lehenik. "Mendi

igoerak eta kartinga ezberdinak dira. Nahiz eta kotxea antzekoa izan, kartingetan denak batera egiten dugu lasterka eta igoeretan erlojuaren kontra egin behar da. Horrek kontzentrazio gehiago eskatzen du".

8. klaseko barketen artean ari da lehian, hau da, abiadura gehien dutenen artean. "Baina nire kotxeak eta besteen barketak ez dute zer ikusirik potentzian. Haienak 500 zaldi ditu eta nireak, berriz, 110".

Eta hurrengo urtean ziurrenik beste maila batean lehiatuko dela jakinarazi digu. "Orain arte ez da Formularik egon lehiaketan. Aurten, kasualitatez, bi izan gara. Federazioek ez zekiten zein mailatan kokatu eta 8. klasean jarri gintuzten. Baina tarte handia dago bata eta besteen artean. Horregatik, federazioak hobeto arautuko duela eta hurrengo denboraldian beste maila bat sortu edo baxuago batean jarriko gaituela adierazi digu".

## Bidea ezagutu

Eragozpen hori alde batera utzita, denboraldi honetan egin zituen bi probatan azkar ibili da gidari lasarte-oriatarra. Entrenamenduetatik azken txandara denbora hobetuz joan da eta Jaizkibelgo igoeran, esate baterako, 03.08.393 denbora eginez, irabazlearengandik 43 segundora geratu zen. "Lehen entrenamenduan bidea aztertzen dut. Asfaltoa nolakoa den, zein zulo dauden ikusten dut. Gero, pixkanaka, txanda bakoitzean azkarrago joaten saiatzen naiz".

Jaizkibelgo igoeran egindako lanaz harro dago Manso, baina arantzatzko bat du. "Azken

txandan ederki nindoan. Aurreko denbora dezente jaitsi behar nuen. Baina aurrekoak kolpea hartu zuen eta errepide erdian aurkitu nuen. Horrek denbora galtzea ekarri zuen eta pena dut horregatik".

Aurtengo denboraldia beste urteetako baino murriztagoa izango da, hiru proba bakarrik jokatu dituzte: Aia, Jaizkibel eta Urraki. "Ea gauza hobetzen den. Denboraldi honetan proba asko bertan behera geratu dira eta hurrengoan, COVID-19ak uzten badu, osoa egitea espero dugu, zazpi edo zortzi probako denboraldi bat izatea".

Dena ondo bidean, urriaren 18an, Urrakiko probak itxiko du Mendi Igoeren Txapelketa eta bertan ere kotxea eta denborak hobetzen jarraitzeko asmoa du gidari gazteak.

## Beste herritarra

Mansoz gain, Pablo Muga herritarrak ere parte hartu zuen Jaizkibelgo igoeran. BMW batekin egin zuen lasterka herritarrak, 4. klasean eta azken txandan 03:16.142 denbora egin ostean, bere mailako laugarren izan zen.

## ANDATZATIK AIARAKO ETA JAIZKIBELGO IGOERATAN PARTE HARTU DU AITOR MANSOK

# Kirol jarduerak, astelehenetik aurrera martxan

Erabiltzaileek jardueraren araberako neurriak jarraitu beharko dituzte. Izena ematea irekia dago, plazak bete arte

## Txintxarri

Irailaren 28an, astelehenez, kirol jardueren ikasturte berria hasiko da Maialen Chourraut kiroldegian. "COVID-19a dela eta, ikasturte berezia izango da, baina kiroldegia normaltasunez martxan jarri nahi izan dugu", azpimarratu du Txus Alonso kirol zinegotziak.

Ohikoa den moduan adin guztietara zuzendutako uretako, zein lehorreko jarduerak eskaintzen ditu Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak. Moldaketa bat dute, ordea. Segurtasun- eta

osasun-neurriak jarraikiz, gehienetan plazak murriztu behar izan dira.

Muskulazio eta kardio gelatan kirol-aholkularitzako zerbitzua dago. Zerbitzu horren bitartez, erabiltzaileek kirol-aparatuak behar bezala erabiltzen ikasi dezakete eta entrenamendu-gida bat ere eskuratu dezakete. Gainera, kontratatzen duten erabiltzaileek entrenamendu-programa edo plan pertsonalizatua izango dute.

Era berean, adineko pertsonak irailaren 29tik aurrera, asteartero,



Udal ordezkariak, kirol jardueren aurkezpenean. T. VALLES

10:30ean, Kontzeju Txiki plazan dauden ariketa fisikoko makinak erabiltzeko doako aholkularitza zerbitzuak baliatu daitezke.

## Neurriak

Kirol zinegotziak jakinarazi duenez, COVID-19aren aurkako hiru protokolo espezifiko

diseinatu dituzte, bata igerilekurako, beste bat haur ekimenetarako eta azkena, lehorreko jardueretako. Parte-hartzaile bakoitzari izena eman duela baieztatu ondoren emango zaio dagokion protokoloa. "Esate baterako, eremu lehorreko aldagelak ez erabiltzeko

gomendioa egiten dugu. Eremu hezekoan, berriz, aldagela erabiltzeko 15 minutu besterik ez dituzte izango", azaldu du Alonsok.

Ezarritako neurriak direla eta, erabiltzaileei bi gauza eskatu dizkie kirol zinegotziak, ulermena eta ardura. "Erabiltzaile eta kirol talde guztiei erantzuteko saiakera egin dugu. Guztion esfortzuekin posible egingo dugu".

Jardueretako izena ematea martxan da eta eskaintako plazak bete arte ez itxiko. Edozein jardueratan parte hartu nahi duen pertsonak kiroldegira deitu beharko du: 943 37 61 82.

"Beldurrarengatik izena emate kopurua jaitsi dela ikusi dugu. Horregatik, herritarrei lasai etorri daitezkeela esan behar diegu. Kiroldegia gune segurua da", adierazi du Alonsok.

ZORION AGURRAK



**Eneko**  
Zorionak Eneko! Ama, aita, amona eta aitonen partetik.



**Iñaki**  
Nola ahaztu Jokerren urtebetetze az!!! Zorionak, zure eguna ongi ospatu izana espero dugu!! Muxu pila Lasarte-Oriatik!

JAIOTAKOAK

**Aratz Polaina Fernandez.** Irailaren 20an.  
**Sara Leary Mejia.** Irailaren 16an.

TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERI AEK: 607 625 233

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**


OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINAZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 25




Larunbata, 26



Igandea, 27




Astelehena, 28




Astearte, 29



Asteazkena, 30



Osteguna, 1



ONGI ETORRI TXIKIAK



HILDAKOAK

**Luciano Alcon Larrucea.** Irailaren 20an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 25 GIL  
**LARUNBATA, 26** GANDARIAS-URIBE  
**IGANDEA, 27** GANDARIAS-URIBE  
**ASTELEHENA, 28** ACHA-ORBEA  
**ASTEARTEA, 29** GANDARIAS-URIBE  
**AZTEAZKENA, 30** URBISTONDO  
**OSTEGUNA, 1** DE ORUE

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.** Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

GUTUNAK

Bideojokoez

**ENEKO OROZ ORMAZABAL**

Ez dakit aurrez inork idatzi duen bideojokoez hemen, baina interesgarria izango litzateke jakitea zenbatetan hitz egin den. Seguru nago gure herrian iturgin famatuarenaren joko famatuaren lehen pantaila ia begiak itxita pasako luketela askok. Ez hori bakarrik, noski. Bideojoko asko daude, mota askotakoak, askotariko jendeari bideratuak. baina agian bi eskuetako hatzekin kontatuko genituzke euskaraz joka ditzakegunak.

Eta hau drama bat da. Denok edo ia denok jolastu dugu jokoren batera. izan Wii Sports, Pokemon Go, Dark Souls, The Sims, edo FIFA. Baina ez dago gure hizkuntzaren arrastorik (hain zuzen goiko erreferentzia Super Marioren joko bat bolondreski euskaratua dagoelako egin dut, zoritxarrez gehienak hala euskaratuak izan baitira).

Honek dakarrena bideojokozaleon komunitatean irlatxo bat kenduta (gamerauntsia), ia beti gaztelera bizi izana da. Gaztelera azalduz, gaztelera jolasten duten streamerrek, gaztelera baizik egiten ez den espazioetan harremantzen jendearekin.

Gaur egun bideojokoen komunitatean oso oso ezaguna bihurtu da Twitch. Bertan hainbat pertsonak zuzenekoak egiten ditugu, batzutan

MARRAZKIZ



bideojokoetara jolasten, bizitzaz hitz egiten besteetan. Seguru nago zuk ez baduzu ezagutzen zure inguruan izango dela plataforma hori erabiltzen duenik.

Bale, eta?

Ba Twitchek streamak (zuzenekoak) jokoka sailkatzen dituela, eta jokoen barruan hizkuntzaka. Ikusle gehien dituenetik gutxien dituenara. Eta euskaraz hutsean aritu arren, ez dago euskaraz hautatzerik.

Horrela, euskaldunok beste hizkuntza bat hautatu behar dugu: gaztelera, frantsesa, ingelesa edo besteak. Hau arazoa da alde batetik bideoak egiten ditugunontzako, ingelesezko edo gaztelera atalean ikusgarri egoteko dementsialki onak izan behar dugulako, eta askotan horrela ere ez. Baina baita ikusleentzako ere, infinitoki zailagoa delako zure joko gustokoenaren streamak zure hizkuntzan ikustea, eta horregatik erdarazkoak ikusten bukatzen duzu.

Hau guztia dela eta, euskal streamer famatuak (nebukai-k) kanpaina bat hasi du Twitchek "euskara" etiketa aktibatu dezan, horrela nahi duenak euskarazko edukiak eskuragarriago eduki ditzan. idatzi honen asmo xumea hori da: kanpainaren berri eman, kanpainaren zergatiak azaldu, eta eskaera babesteko gonbita luzatzea, bideojokoak ere euskaraz bizi nahi ditugulako.

## AZOKA TXIKIA

### LANA

#### ESKARIA

Lan bila dabilen Lasarte-Oriako emakumea naiz. Etxeko garbiketarako edo haur zein helduak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia, 648 630 016.

Lan bila nabil geriatría arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. Harremanetarako zenbakia, 690 146 067

Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. Harremanetarako zenbakia, 639 740 900. Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. Harremanetarako zenbakia, 630 682 716.

### SALEROSKETA

#### SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo

aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. 2017. urtean erosi. Haur batek bakarrik erabilia. Oso konpaktu. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. Harremanetarako zenbakia, 646 824 466.

### BESTELAKOAK

#### HEZKUNTZA

Klase partikularrek eskaintzen ditut, bi umeko taldeetan. Edozein adin eta maila. WhatsApp bidez jarri harremanetan, 693 601 222.

DBH3ko ikasleentzako klase partikularrek behar ditut. Gure etxean (Basaundi Bailaran) edo irakaslearen etxean baina bera bakarrik. Harremanetarako zenbakia, 661 700 338.

### NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

**TAMAINA BERRIA**  
Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

## ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz  
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943 37 14 48**

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

### Lege Gordailua:

SS-513/94  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.350 ale

### BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

### DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



## LASARTE-ORIA Bigarren eskuko azoka

Europako Mugikortasun Astearekin bat eginik, bizikleten eta patineten bigarren eskuko azoka antolatuko dute Artelatz enpresak eta Lasarte-Oriako Udalak. Ostirala 25, Okendo plaza, 16:30etik 20:00etara.

## OSTIRALA 25

### LASARTE Azoka

Europako Mugikortasun Astearekin bat eginik, bizikleten eta patineten bigarren eskuko azoka antolatuko dute Artelatz enpresak eta Lasarte-Oriako Udalak. Aforo maximoa "uneoro" zainduko dutela adierazi dute, eta parte hartu nahi duten lasarte-oriatarrei bisitak egiteko txandak emango dizkiete 15:00etatik aurrera, jende pilaketak saihesteko.

**Okendo plaza, 16:30ean.**

### HERNANI Ikuskizuna

Miren Amurizak eta Askoa Etxebarrietak sortutako *Gorria* ikuskizuna eskainiko dute. Bertsolari baten eta bailaora baten arteko elkarriketa prozesu baten emaitza da ikuskizuna, esperimentazio gune bat. Hamar piezatan banaturiko ordubete inguruko obra da eta doakoa den arren, sarrerak Doberako bulegoan eskuratu behar dira.

**Biteri, 19:00etan.**

## LARUNBATA 19

### USURBIL Bisita gidatua

Harria Hitz bisita gidatua herrigunean: Dema Plaza, Udarregiren omenezko eskultura, Zumetaren murala, Mikel Laboa plaza, Tapiaren murala, Askatasuna plaza, Sagardoaren monumentua. Prezioa: 5 euro, eta izen-ematea aldeztatik aurretik egin behar da 688 81 80 17 telefono zenbakian edo [info@kultour.pro](mailto:info@kultour.pro) helbidean.

**Usurbilgo frontoia, 11:00etan.**

### ANDOAIN Antzerkia

Hika Teatroak *Tonbola* antzezlanaren eskainiko du Andoaingo Ondarreta ikastetxeko patioan. Sarrera doakoa da, baina gonbidapena jasotzeko Bastero Kulturguneko leihatilara gerturatu behar da emanaldia hasi baino bi ordu lehenago.

**Ondarreta ikastetxea, 19:30ean.**

## IGANDEA 20

### AMASA-VILLABONA Dantza

Aukeran Dantza Konpainiak *Maurizia naz* dantza ikuskizuna eskainiko du. Sarrera doakoa da.

**Errebote plaza, 13:00etan.**

### AMASA-VILLABONA Haur antzerkia

Glu Glu Produktioak *Marierrauskin* haurrentzako ipuin klasikoa antzerkira eraman du, 3 eta 8 urte bitarteko haurrentzat moldatuta. Sarrerak aurrez erosi daitezke 5 euroren truke Basajaun liburu-denda edota Amasa kafetegian; eta egunean bertan leihatilan eskuratu ahal izango dira 6 eurotan.

**Gure antzokia, 17:00etan.**

### ZIZURKIL Haur antzerkia

Txalo produktioak *Legoa itsaspeko zaborretan* haur antzerkia ikusteko aukera izango da. Sarrera doakoa den arren, gonbidapenak eskuratu behar dira udal bulegoetan. Pertsona bakoitzak gehienez lau gonbidapen jaso ahal izango ditu ekitaldi bakoitzeko.

**Joxe Arregi plaza, 18:30ean.**



'Aske'. ION ZUGASTI



'Frigiliana!'. ION ZUGASTI



'Jaizkibel!'. ION ZUGASTI

# Ion Zugasti, argazki lehiaketako irabazle


## Txintxarri

TXINTXARRI aldizkariko udako oporraldiko argazki lehiaketak badu irabazlea: Ion Zugasti lasarte-oriatarren *Aske* argazkia izan da bozka gehien lortu dituen, eta hortaz, lehen sailkatua. Zorionak!

Parte-hartzaileek hamasei argazki aurkeztu dituzte TXINTXARRI aldizkariko webguneko lehiaketara. Irailaren 14an zabaldu zen bozka emateko epea, astelehenarekin, eta astebeteko tartea izan da horretarako; irailaren 20an itxi zen, igandez. Ugariak izan dira argazkiak jasotako babes bozak.

*Aske* izan da garailea. Errepidean doan motorrari eta bidaiariei ateratako argazkiak 292 boz jaso ditu. Bigarren eta hirugarren sailkatuak ere egile berarenak izan dira. Bigarrenak, *Frigilianak* 285 boza lortu ditu eta hirugarrenak, *Jaizkibelek*, berriz, 250. Podiuma, beraz, bere argazkiek osatu dute.

Ion Zugastik datorren asteazkenean jasoko du saria. Oraingoan, Aldikaren eskutik kutxi produktu sorta ederra. Goza dezala eta mila esker parte-hartzaile guztiei! Datorren urtean gehiago!



1980an hasi zen herrian lanean. P. BERGARA

# "Besarkada bat guztioi, bihotzez agur Lasarte"

Pako Bergara 1980an hasi zen plastika klaseak ematen Landaberrin, Jose Luis Zumeta margolariaren orde, ordu batzuez. 1982tik 1994ra lanaldi osoz jardun zuen han. 1995ean Landaberri publikatu zenetik gaur egunera arte, teknologia irakatsi du Pintore kalean dagoen institutuan, Oriarte Landaberrin. Erretiroa hartu, eta, bertsotan, agur esan dio herriari




Pako 40 urtez aritu da irakasle. P. BERGARA

**Landaberriri eta Lasarteri agurra** Doinua: A. Sarriegi (Andres Calamaro)

Lasarten kilometroak eman nituen bi bira, ondoren lanean hasi handikan oso gutxira, txima luze ta bibote gaztetasun distira, buelta askotxo eginak geroztik LANDABERRIRA, plastikako saio askotan joaten ginen gu mendira, buztina lantzer a edo Larraul eta antzerkira. Gero teknoko irakasle asmakizunei begira konturatu gabe ia berrogei urte joan dira

Klitxe ta multikopista beste garai batzuk ziren, bilera ta klaustro ugari eztabaida eta hitzarmen, tentsiorik ez zen falta publikatu baikinen, urteak pasa ondoren noraino iritsi garen. Ahalegindu gara behintzat beti euskara sustatzen, hezkuntza hobea goa ikasle denei eskaintzen erronkarik ez da falta, jarrai dezagun amesten, Lasarteko biztanleak, euskaraz direla ulertzen

Agurraren garaia da, Landaberri Oriarte agur gurasoei eta muxu bat lankide maite, ikasle izandakooi aipamena doa aparte, barkatu gaizki eginak, eta nahi duzuen arte. Guztiok izan zarete, nire bizitzaren parte. Plastika, teknologia edo bestelako arte oroitzenak borborka, pasa dira hainbat urte, besarkada bat guztioi, bihotzez agur Lasarte



## A2car

Zumaburu kalea 18  
Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 24 63

**Zatoz gu ezagutzera**  
Moto eta kotxeentzat  
pneumatiko  
eskaintza zabala



**Zure konfiantzako tailerra, segurtasun berme guztiekin**



**2mó**  
progresibo  
erreflexuen aurkako lenteekin

**229€**

2020/12/31ra arte baliagarria. Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

**MULTIÓPTICAS**

www.multiopticas.com   